


# BI ETA HIRU URTEKOEN GELAKO LAGUNTZAILEAK


## 2022-2023

Zuen eskoletan familia berriak behar bezala informatzeko asmoarekin, informazioa eta hainbat gomendio helarazi nahi dizkizuegu.




Bi eta hiru urteko haurren geletan irakaste-ordutegian diharduten **laguntzaileak EZ dira Hezkuntza Sailaren mendekoak.**

**Hezkuntza Sailaren ardura bait da beharrezko baliabideak ikastetxeetara bidaltzea.**



Arartekoak, 2014ko martxoaren 6an, gomendio hau egin zion Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari: «*Ez ditzala baimendu hezkuntza-administraziokoak ez diren langile laguntzaileak Sailaren mendeko ikastetxeetako bi urtekoen geletan edo, bestela, **baliabide horiek, bere langileak erabiliz, Saileko ikastetxeetako bi urtekoen gela guztietara heda ditzala**».*




**2 urteko gelei dagokienez,** bidaltzen diren baliabideak uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren 24. Artikuluan agertzen dira. Bertan jasotzen denez, ikastetxeko talde bakoitzak tutore bat izateaz gain, bi urteko geletan laguntzeko berariazko kreditu bat esleitzen da:

- 1 edo 2 unitate (ikasgela) dituzten eskolek **irakasle erdi bat** gehiago izango dute.
- 3 edo 4 unitate (ikasgela) dituztenek, **irakasle bat** gehiago.
- 5 unitate (ikasgela) dituztenek, **irakasle eta erdi gehiago.**

Kreditu gehigarri bat esleituiko zaie 2 eta 3 urteko ikasleen haur-hezkuntzako ikasgela asko dituzten ikastetxeei, honela:

- 5 edo 6 ikasgela dituzten eskolei, **irakasle erdi bat gehiago.**
- 7 gela edo gehiago dituzten eskolei, **irakasle bat gehiago.**




**3 urteko gelei dagokienez,** 2018ko martxoaren 14an Eusko Jaurlaritzak eta CCOO, LAB, STEILAS, UGT sindikatuek akordio bat sinatu zuten, 3 urteko geletako irakasleen plantillak indartzeko.

Ikastetxeko talde bakoitzak tutore bat izateaz gain, ratioak batez beste 20 ikasle baino gehiagokoak badira, langile osagarriak esleituiko dira, honako irizpide hauen arabera:


- 1 edo 2 unitate (ikasgela) dituzten eskoleek **irakasle erdi bat** izango dute.
- 3 edo 4 unitate (ikasgela) dituztenek, **irakasle bat** gehiago.
- 5 unitate (ikasgela) dituztenek, **irakasle eta erdi** gehiago.

Neurri hori 18-19 ikasturtean martxan jarri zen.


# Gogoratu




Ez OOGek ez ikastetxeko zuzendaritzak ez dute erabakitzeko edo kontratazeko eskubiderik. Ez da derrigorrezkoa IGEak bi urtekoen gelentzako laguntzaileak kontratatzea.




**Kontratazioa egin arren, ezin dira familiak ordaintzera behartu.** Elkaratearen betebeharra da ordaintzea derrigorrezkoa ez dela jakinaraztea. Edozein familiak uko egin diezaioke ordaintzeari.




Laguntzaileen kontratazioak egiten diren eskola gehienetan IGEek egiten dituzte, eta, beraz, **horren ondoriozko arazo guztien erantzule dira.**



Ordainketak ez egitearen edo berandu egitearen ondorioz, **elkarte asko egoera sostengaezin batera iristen ari dira**, eta haiekin batera bazkide guztiak. Une horretan elkarteko kide ez diren familiei edo hurrengo urtean ikastetxea utziko dutenei zerbitzu bat ematen ari dira ikastetxeak kasu batzuetan.



**Elkarateetako asanbladek ezagutu eta onartu behar dituzte** kontratazio-baldintza guztiak (kontratuen amaiera-datak, luzapenak, etabar).



Egoera hau **Bizkaian bakarrik ematen da.** Familiek ez dute laguntzailerik kontratatzen ez Gipuzkoan ez Araban, eta Bizkaian adina baliabide dituzte.